

Kexatu

Mirari Martiarena
Iraola

Eguraldiari buruz idaztea izan liteke beste gairik ez dudalako eta azken errekurtso bezala. Baina azken astean berriz ere negu giroa izan dugula ikusita pixka bat etsituta nago eta Euskal Herrian sentimendu orokorra dela esango nuke. Behin apirilaren erdi aldera iritsita gogotsu gaude jaka potoloak hurrengo azarora arte armairuan gordetzeko eta gure azal zuriak eguzkitan jartzeko.

Euriari eguraldi txarra esaten diogu, baina berez txar-txarra ere ez da. Zen-

batetan entzun dugun: «Gure mendiak hain berdeak zergatik direla uste duzu?». Eta ezin dugu kexatu, noski, gure paisaia berdeak gustatzen zaizkigulako. Baina aitor dezagun, nazkatuta gaude, egurrezko leiho eta ateak bezain uhandituta, herdoilak jota. Mendiak pixka bat itsusiago ikustearekin ere konformatuko ginateke oraintxe bertan.

Pertsonok “konfort klimatikoa” bilatzeko joera omen dugu. 20-25 gradutan egon, %40-70eko hezetasunarekin, 1013,2ko milibarreko presioarekin eta

0,15-0,25 metro segundoko airearen abiadurarekin. Hauen aldaketa aldiek pertsonon umorean eragin zuzen-zuzena izaten omen dute.

Ez dut uste Euskal Herrian bete-betean sartzen garenik “konfort klimatiko” horretan, honezkero ohituta gaude gu-rera. Eta txarrerako egiten dugu lotura. Euriari eguraldi tristea deitzen diogu, bero handiari eguraldi kixkalia. Kontua kexatzea da eguraldi ona iristen den bitartean, noizbait iristen bada behintzat. •

Boikotaren beharra

Koldo Sagasti

Pasa den martxoaren 23an, Tel Aviveko Maccabi eta Baskoniaren arteko saskibaloï partidaren atarian, Israelen aurkako nazioarteko BDZ Boikota, Desinbertsioak eta Zigorak kanpainari atxikitako Gasteizko taldeak eskaera xume bat eraman zuen bertako Udal Batzarrerara: Udalak berma zezala hiritarrek esparru publikoetan aldarrikapen zilegi eta legezkoak egiteko duten eskubidea, baita Israelgo ordezkarien kontrako boikota aldarrikatzeko eskubidea ere. PNV, PSE eta PPK uko egin zioten gasteiztarren adieraz-

pen askatasuna bermatzeko eskakizunari. Errefusatutako testuak, halaber, galdegiten zion Udalbatzari gaitzez zitzala Israelek burututako nazioarteko legediaren urraketak eta Tel Aviveko klubak urraketa horiei emandako sostengua.

Patuaren kapritxo makabro batez-edo, handik astebetera Israelgo erregimenak triskantza odoltsua burutu zuen Gazarekiko mugan. Armada okupatzaileko frankotiratzaileak tiroz oldartu zitzaizkien armarik gabeko milaka manifestariri. Hurrengo bi ostiraletako protestaldietan 32 palestinar erail eta 2.500etik

gora zauritu zituzten sionistek. Sarraskiak ez du apenas erreakziorik eragin mundu zabaleko erakundeetan.

Gasteizko mozioa emendatu zuen zinegotzietako batek argudiatu zuen bere ezetza esanez giza eskubideen aldeko nazioarteko kanpainak ez direla Udalaren ardura. Baina historiak erakutsi digu, Hego Afrikako *apartheid* erregimenaren aurkako kanpainan bezala, boikot ekimen global batek bere xedea lortuko badu, eragile guztien konpromisoa behar duela, nazioarteko erakundeetatik hasi eta azken udaleraino. •